

UPV/EHU-KO IKASLEEN V. BILTZARRA

NIRE GRADU AMAIERAKO LANAK (GrAL) MUNDUA ALDATZEKO BALIO DU 2022

Gradu Amaierako Lanaren Izenburua (GrAL)

GORPUTZAREN ULERKERAK MEDIKUNTZAREN FILOSOFIAN: Zaintza aringarrien erronka

Egilea

Ainhoa de la Hoz González

Gradua

Filosofia

Zein Ekarpen egiten die GIHei (Garapen Iraunkorreko Helburuei)

3. Osasuna eta ongizatea

Laburpena

GrAL honetan, giza gorputzaren inguruko hausnarketa filosofikoa egin da. Horretarako, garai Presokratikotik Pizkundera arteko ibilbide mediku-historiko-metafisikoaren garapena aztertu da. Jarraian, bide horretatik eratorriak izan zaizkigun giza gorputzari buruzko faktore politikoak eta medikuak kontuan izan dira. Hortaz, bukatzeko, giza gorputz gaixoak zaintza aringarriekin duten erlazioa eta gorputzak ulertzeko moduek duten garrantzia zein den hausnartu da.

2030 Agendaren GIH Ekarpenak

GrAL honetan giza gorputzaren hausnarketa filosofiko sakona egin da. Batez ere, gizakiaren gorputzaren osasunarekin zer ikusi duten ondorioak sortu dira. Hain zuzen ere, zer nolako osasun-sistema mota eraiki nahi dugunarena; zaintza aringarrietatik bideratuta. 2030 Agendan GIHtako batekin bat dator lan hau; Osasuna eta Ongizatea, hain zuzen. Osasun estaldura unibertsala lortzeko eraikuntzan, ezinbestekoak dira zer nolako osasun sistema dugun eta garatu nahi dugun haunarketak egitea.